

Nafarroa 1512-2012

Konkistaren oinatzak

1512ko gertakizuna “ospatzeko” edo “gogoratzeko” ekitaldien prestaketak hasi dira dagoeneko.

Urteurrenak hartuko duen tamainaren erakusgarri. Gaurko eztabaidak atzoko kontakizunen oinatzak ditu atzean, eta zidorraren sigi-saga ikusi behar da balantze historiografiko bat egiteko.

URKO APAOLAZA

GAZTELAK Nafarroa konkistatu –beregianatu?– zuela bost mende igaroko dira 2012an, eta gertakizunaren inguruko eztabaida *in crescendo* joango dela inork dudarik ez du egiten.

Ekainaren 30ean, Noaingo batailaren urtemuga aprobetxatuz, Nafarroako hainbat historialarik prentsaurrekoa egin zuten, konkistaren inguruan “egia osoa” jakiteko esku-bidea dugula esanez. Posible da historian benetan gertatutakoa kontatzea? Norberak ikusiko du esaldi horri galdera ikurra kendu edo ez. Baina gauza jakina da mendetan zehar historialari eta kronistak saiatu direla 1512an gertatutakoa narratzen, interpretatzen, baliatzen. Izan ere, sinbolismo politiko ikaragarriak kateatzen duen kontua da honakoa. Gorabehera historiografiko horren perfila ulertzeko zertzelada batzuk aurkituko ditu irakurleak hemen.

Jainkoaren izenean?

1512ko uztailaren 19an Fernando II.a errege Katolikoak Nafarroa erasotzeko agindua eman zion milaka soldaduren buru zen Albako dukeari. Egun gutxiren buruan Iruñean zeuden. Ordutik, Nafarroako erregeak behin baino gehiagotan saiatu ziren erreinua berreskuratzen, baina Nafarroa Gaztelako Koroan txertaturik geratu zen.

XVI. mendean Fernando erregeak Nafarroa konkistatzeko zuen legitimitateaz asko eztabaidatu zen –nolabait esatearren–, batez ere orduko Aita Santuak kaleratutako bulda baten harira. Julio II.aren *Pastor Ille Caelestis* izeneko bulda Frantziako



errege “zismatikoaren” kontra zihoan –Liga Santuaren etsaia baitzen–, eta nafarrak frantziarrekin harremanetan hasi zirela aitzaki hartuta, Fernando Katolikoak Pirinioez bi aldetako erreinuari erasoak jo zion.

Espainiako kronistek arrazoi dibiinoa erabili zuten, orduko hartan, konkista justifikatzeko. Konkistatzai-

leekin “enpotraturik” iritsi zen Luis Correak 1513an idatzi zuenez Aita Santua bera izan zen Espainiari laguntza eskatu ziona Frantziako Luis erregearen kontra egiteko, eta Nafarroako Labrit erregea gurutzada hori oztopatzen ari zen “engainua erabiliz”. Correarentzat konkista erlijioaren defentsan egin zen.



1500. urteko mapa.

Konkistako garaietan ifrentzu gehien utzi zuen idazleetako bat Elio Antonio de Nebrija humanista dugu. Erregeren kronista ofiziala zenez, ez da bizkorra izan behar *De bello Navarrico libri duo* liburuan (1545) bere ikuspegia zein izan zen asmatzeko. Honek ere Aita Santuaren bulda erabili zuen ekintza militarra arrazoitze-ko, baina modu berean Espainiak zegokiona berreskuratu zuela esan zuen –“*fue reintegrada a su España*”–, jatorriko Hispaniaren mitoari helduz. Gerora, zalantzan jarri izan da berak idatzi zuenetz liburu hori.

Nafarroako erregeek behin eta berriro aldarrikatu zuten erreinuaren gaineko subiranotasuna. Orduko bertsio ofizialarekin disidentzian, Juan de Sada iruindarrak Nafarroaren *Historia apologética* idatzi zuen 1628an. Aragoar, gaztelau eta baita euskaldunei ere egurra eman zien obra horretan (www.memoriadigital-vasca.es webgunean irakurgai). Nafarroako historia seriotasunez ez zela ikertu salatua izan eta historialariek “fundamentu gabe” esplikatu zutela Nafarroaren jabetza. Aitzitik, hara zein zen Juan de Sadaren ustea: “...por muy justos y antiquísimos títulos

pertenecieron a la corona de Navarra, los reynos de Castilla, Aragon y Sobrarbe”. Hitzok erresumina sortu eta erreplikarako okasioa eman zuten, batez ere aragoarren artean. Ezinbesteko liburua da honakoa, Nafarroako historiari inprimatutako lehenengoa, eta ikuspegi arras ezberdina erakusten duena, nahiz eta batzuetan ez duen sobera asmatzen eta kontraesanean sartzen den. Duela gutxi liburuaren ale urrietako bat subastatu zuen Ingalaterrako Shoteby’s etxeak 1.746 euroren truke.

Nafarroak “ez du ezer pintatzen”.

Ikusten denez, Nafarroako konkistaren bidez kotasunaz aritu ziren historialariak konkista ondorengo lehen mendeetan, eta funtsean, interpretazio nagusia Gaztelaren aldekoa izan zen. *Vascongada* kronista garran-

**Nafarroako eliteek,
komententziaz, erreinu
zaharraren oroitzapen
lauso bat besterik
ez zuten ukan**

tzitsuenek ere –Garibay, Zaldibia...– harro azaltzen zuten Gipuzkoako armarriko kanoiak Belateko batailan irabazi zituztela nafarren kontra.

Espainiak XVI. mendetik aurrera inperio ikaragarria sortu zuen urazandi. Nafarroako eliteek ez zioten aberastasun horri muzin egin, eta komententziaz, erreinu zaharraren oroitzapen lauso bat besterik ez zuten ukan: “Independenzia galdu zuenetik ia karlistadetera arte edo, Nafarroaren izenik apenas entzun ere egiten den. Ez du ezer pintatzen”, dio Joxe Azurmendi saiakera-gileak *Espainolak eta Euskaldunak* maisulanean.

Dena den, XVII. mendean, austriarren sakada gero eta gehiago nabaritzen zuten Nafarroako Gorte lermatuek eta horregatik erreinuaren berezko foru eskubideak nolabait gerizatzeko, lehenengo kronista ofizial izendatu zuten Jose Moret y Mendi. Horrela, *Annales del Reyno de Navarra* eta beste lan batzuk eskribitu zituen Moret-ek Nafarroako antzinatearen defentsan, eta “paktismoa” bezala ezagutzen den imajinarioaren oinarriak elikatu zituen. Moreten lana izan da atzo arte nafar historialarien erreferentzia nagusietako bat.

Boissonnade

XIX. mende amaieran 1512ko gertaeraz espresuki hitz egiten duen lan bat kaleratu zen aspaldiko partez, Pierre Boissonnaderen *Historie de la réunion de la Navarre à la Castille*. Zein zen bere ikuspegia? Orduko frantziar erudituen korronteari segituz, ikuspegi sozial zabalago batetik landu zuen konkistaren gaia, horra Boissonnaderen balioa. Askorentzat lan mugarririk da honakoa eta frantsesez nahiz gaztelaniaz hainbat edizio izan ditu. Ekin argitaletxeak, esaterako, 1956an publikatu zuen eta duela gutxi gauza bera egin du Nafarroako Gobernuak.

Baina frantziarrak bere obra kaleratu zuenean testuingurua arrunt ezberdina zen jada. Izan ere, foruak dilindan zeuden eta eztabaida Nafarroako nortasunaren munita iritsi zen. Pentsa, Jose Yanguas y Mirandak esan zuen Nafarroa oraindik eta espainiarragoa zela konkista egin zenez geroztik. Ideia

hori sentimendu antieuskaldunarekin uztartu zenean sortu zen, XX. mende hasieran, hemen “navarrismo praderista” deituko dioguna.

Amaiur...

1921eko urtarrilaren 6a, Iruñeko Centro Católico Español: “*En el siglo XX el nacionalismo glorifica a aquel partido [agramontarrak] traidor a Navarra, en el monumento que se trata de erigir a los defensores de Amayur, cuya actuación era favorable a la anexión de Navarra a Francia. Siempre los nacionalistas se muestran enemigos de la tradición navarra, es decir, intrínsecamente antinavarros*”. Victor Pradera erregionalistak XVI. mendeko Nebrijaren tesiak bere egin eta XX. mendeko giro politikora eguneratu zituen Iruñeko diskurtso horretan. Arturo Campion, Manuel Aranzadi eta beste batzuk —ez halabeharrez aber tzaleak— aspaldi zebiltzan Nafarroako “azken defendatzaileen aldeko” monumentua sustatzen eta haien erantzuna berehalakoa izan zen. Esaterako, Pedro Navascues seminarista gazteak *Amayur... los últimos nabarros* liburua kaleratu zuen Miguel de Orreaga ezizenarekin, “tonu borrokalarian” Emilio Majuelo liburuaren azken argitalpeneko (Txalaparta, 2008) editorearen ustez. “*En Maya terminó la secular independencia del Reino navarro*” dio Navascuesek.

Beraz, navarrismo praderista alde batean —Victor Pradera, Eladio Esparza, *Diario de Navarra* Garcilaso...— eta Campion eta bere enparauak bestean. Makil dantza horrek hamarkada bat iraun zuen. Gero etorri ziren gerra zibila eta frankismoa.

Nafarroa: Euskal Estatua

Jakina da frankismoko navarrismo *Delburgotarra* —hitza Santi Leone historialariari zor zaio— oraindik eta antieuskaldunago egin zela, eta kapaz izan zen dokumentuak faltsutzeko Nafarroaren espainiartasuna frogatu nahian. Dena den, horrek ez du esan nahi, zeharka, Nafarroako konkista jorratzen duen lan sakinik egin ez zenik ilunpe horretan; adibide bezala jar dezakegu Jose Maria Lacarraren *Historia política del Reino de Navarra* obra.

Nafarroa Bizirik

Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren harira hainbat plataforma eta batzorde sortu dira. *1512-2012 Nafarroa Bizirik* ekimena konkista salatzen joa zen 2008ko ekainean: “Gaur, Nafarroa Espainiara libreki bildu zela dioen faltsukeriaren aitzinean, 2012an Espainia Nafarroa konkistatzen hasi zela 500 urte beteko direla gogora ekarri nahi dugu, data hura giltzarri izan zen gure estatua indarrez hondarazteko”, diote sorrera manifestuan.

Plataforma honek hainbat ekitaldi sustatu ditu azken hilabeteetan. Besteak beste 40 udal baino gehiagoren babesu jaso du eta otsailean ekitaldi jendetsua egin zuen Amaiurren. Ekimenaren helburuetako bat da ekitaldi ofizialen aurrean konkistaren beste ikuspegi bat ematea. Interneten webgunea paratu dute: www.1512-2012.com.

Nafarroako Gobernuak konkista “ospatuko” du

Sanzen Gobernuak ere hasi da bosgarren mendeurrenaren antolaketa lanean, baina aldi berean Navas de Tolosako 800. urteurrena “ospatuko” du Espainiako Gobernuarekin batera. Horretarako batzorde bat sortu dute, konferentziak eman, erakusketak antolatu eta liburuak argitaratzeko.

1980ko hamarkadatik, Foru Hobekuntzaren ingurumartik aurrera, hainbat liburu eta konferentzietan tratatu zen 1512ko gertaera, eta autore zenbaitek insistitu zuten konkista biolentzia izan zela hura, paktua baino. Baina milurteko berriaren bueltan hartuko du ideia horrek indar gehien, Nabarralde mugimenduan aritzen diren historialarien aldetik. 1998an Jose Maria Olaizola eta Tomas Urzainkik *La Navarra Marítima* publikatu zuten arrakasta itzelarekin. Ildo horri jarraiki beste hainbat lan publikatu dira geroztik, horien artean nabarmentzekoa da Mikel Sorauren-en *Historia de Navarra. El Estado Vasco*. Soraurenen hitzetan Nafarroaren historia “ezohikoa” azaltzen du liburu horrek. Izan ere Nabarralderen ikuspegia da antzina Nafar Estatu politiko baten barnean geundela euskaldun guztiak. Korrante honen barruan sartzen da, baita ere, aspaldian Nafarroako konkistaz idatzi den liburu mardulenetako bat, Pedro Esarteren *Navarra, 1520-1530*. Esartek demostratu nahi du Nafarroa, konkistatua izateaz gain,

okupatua eta jazarria ere izan zela, eta horretarako Nafarroako Agiritegi Orokorreara jo du batez ere.

Nabarralderi kritika

Arestian aipaturiko Nabarralde barruko historia mugimendu horrek kritika eragin du navarrismotik urrun dauden zenbait historialariren artean. Juanjo Larrea EHUKo erdiarolariak *Hika* aldizkarian artikulua gordina idatzi zuen duela urte batzuk. Larrearen ustez, Urzainki eta bere iritzikoen tesiak ez dira orijinalak, ez dira garde-nak eta iritziak erabiltzen dituzte frogak gisara. Baina batez ere lan horiei darian “naftalina usainak” gogaitzen du Larrea, hau da, kritikatzuten dutena imitatzea.

“Historia liburuak definitiboak dira, definitibo izatetik gelditzen diren arte” dio Santi Leonek bere *Euskal Herri imaginario baten alde* liburuan. Iritzi karga nabarmena duen saiakera horretan Nabarraldeko ikerketak kritikatzuten ditu egia absolutua balira bezala aurkezteagatik. Beste hainbat kritika egiten dizkie naski: koherentzia falta, estilo solemnea eta abar. Eta proposamen bat egiten du ataka historiografiko honetatik ateratzeko: “Asma dezagun Euskal Herria”.

Ematen du konkistaren legimititateaz hitz egitetik konkista hori jasan zutenen nortasunaz hitz egitera igaro dela eztabaida, eta berriz ere politikaren eremuetan kateatu dela. ■

Navarrismo praderista alde batean, Campion eta bere enparauak bestean. Makil dantza horrek hamarkada bat iraun zuen.